

# NESTOR BASTERRETXEAREN LANA LISTORRETA-BARRENGOLOIAN

Basoa Fundazioa

**E**uskal Herriko mendietako eskumen administratiboak oraindik Espainiako ICONAren (Instituto para la Conservación de la Naturaleza) eskuetan zeudenean, erakunde honek Gipuzkoako hainbat mendi komunaletan erabile-  
ra publikoa sustatu asmoz, Bermekoa den Nestor Basterretxea eskultoreari enkargatu zion, besteak beste, gaur egun Listorreta-Barrengoloian kokatuta dagoen bere lana.

Bertan ikusi daiteke atsedeen-guneetan ugari dauden mahai eta eserlekuz osatutako egi-

tura bat. Harriz eta adreiluz egina. 1979 urtean egindako Basterretxearen lan honek hamarkada hauetan mantentzen gutxi jaso badu ere, 2006an Basoa Fundazioa eta Kutxarekin Udalak sinatu zuen Hitzarmenari esker, eskultorearen lana berriro ahal izan da.

Izan ere, aurtengo maiatzaren 25ean "berri-nauguratu" zen Nestorren lana, Udalak obra hau iraunkorki bere onean mantentzeko konpromisoa hartu duelarik. Hala agindu zuen Juan Carlos Merino alkateak bertako ekimenean zeuden



Iñaki Azkarate


Nestor Basterretxeari berari eta Kutxa (Javier Lomas) eta Basoa Fundazioko (Jorge Askasibar) arduradunei.

Ez da ahaztu behar non dagoen kokatuta lan hau: Listorretan, Aiako Harriko Parke Naturala eta Garrantzi Komunitarioko Lekuaren (GKL) sarre-  
ra nagusietako batetan, hain zuzen. Obra honen ondean, Parke Naturaleko Informazio-Bulego bat jarri da aipatutako Hitzarmenaren baitan, 2006an udaberri eta udan naturgune babestu honen bisitari-  
rei fauna, flora eta bioaniztasunari buruzko infor-

mazioa luzatzen zaielarik, antolatutako hainbat irteera gidatu ahaztu gabe. Era berean, eguzkiko energi-  
az elikatzen da Bulegoko argindarra.

Esan behar da, Parke Naturalean lehen aldiz gauzatu direla holako informazio eta komunika-  
zio-ekimenak, nahiz eta 1995. urtetik indarrean egon Añarbe eta Parke Natural osoaren babes-  
a.

Benetan, ohore bat da Errenteriako biztan-  
leentzat Euskal Herriko eskultore nagusietako batek sortutako lana gure herri-lurretan gor-  
detzea. Eskerrik asko Nestor.



Fotos: Iñaki Azkarate